

Euskal AEko ondasunen esportazioak % 11,0 gehitu ziren 2024ko urrian, eta inportazioak % 9,5

2024ko lehen hamar hilabeteetako metatuan, esportazioek % 3,3 egin dute atzera, baina 26.200 milioi eurotik gorakoak dira

Euskal AEko **ondasunen esportazioak** % 11,0 gehitu ziren 2024ko urrian urte artean, EUSTATen datuen arabera. Zenbatekoa 3.122 milioi eurokoa izan zen, aurreko urteko hilabete bereko 2.814 milioien aldean. Produktu *energetikoen* esportazioak % 52,2 gehitu ziren eta *ez-energetikoenak* % 8,6.

Bizkaia da progresio handiena izan duen lurralde historikoa (% 18,4), *produktu ez-energetikoen* esportazioak (% 12,4) eta, batez ere, *energetikoenak* (% 53,2) hazi direlako. Gipuzkoan esportazioak, oro har, % 17,3 igo dira eta Araban % 2,8 jaitsi dira.

insertatabla_21140

Euskal AEko **ondasunen inportazioek** % 9,5eko hazkundera izan zuten, 2.440 milioi euroko zenbatekoarekin. Inportazio *energetikoak* % 8,4 hazi ziren eta *ez-energetikoak* % 9,9. Lurraldeen arabera, Bizkaiko inportazioek % 7,3 egin dute gora, Gipuzkoakoek % 9,3 eta Arabakoek % 14,9.

insertatabla_21139

Xehetasunetara jaitsita, ikusten da 988 esportazio-partiden rankingaren buruan "10 pertsona baino gutxiagoko turismoak" daudela, 318,8 milioi merkaturatuta eta % 4,4ko atzerapenarekin aurreko urteko hilabete beraren aldean; "Ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak", 205,2 milioi eta aurreko urteko hilabete beraren aldean % 6,8 gehiago; "Petrolio-olio finduak", 154,6 milioi eta % 9,9ko hazkunderarekin; "Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak", 132,4 milioi baina % 36,0 gutxiago; eta "Kautxuzko pneumatiko berriak", 92,2 milioi eta % 24,8ko jaitsierarekin. Bost partida horiek urrian guztizkoaren % 28,9 hartzen dute, 903,2 milioi euroko balio bateratuarekin; horietatik 748,6 automobilaren sektoreari dagozkio.

Lehenengo 25 posizioetako batean dauden partiden artean, nabarmentzekoak dira "Gainerako motorrak, makina eragileak eta horien zatiak: hidraulikoak, pneumatikoak eta abar" ataleko "Bidaiarien autoak, bagajeak, posta, etab. trenbideetarako eta antzekoetarako" (% 6.715,8). (% 265,9) eta "Makina-erremintak eta forjatzeko, estanpatzeko, zizailatzeko, puntzonatzeko, ehuntzeko, biribiltzeko, kurbatzeko, tolesteko prentsak, etab.". (% 231,0) "Trenbideetarako automotorrak eta tranbia autopropultsatutakoak" ere jaitsi egin dira (-%43,0).

Urrian, Frantzia, Alemania, Erresuma Batua, Estatu Batuak eta Belgika dira Euskal AEko bezero nagusiak, esportazio guztien % 48 bereganatu baitituzte. Bost herrialde horietatik hiru EB-27koak dira, eta erakunde horrek esportazioaren % 60,5 biltzen du.

Inportazioak muga-zergen partiden arabera aztertuz gero, ikusten da garrantzitsuenak, "Petrolio edo mineral bituminosoko olio gordinak", guztizkoaren % 13,6 hartzen duenak, % 34,1eko jaitsiera izan duela. Aitzitik, "Petrolio-olio finduak" (% 323,6, 204 milioi inportatuta) eta "Petrolio-gasa eta gainerako hidrokarbu gaseosoak" (% 2.971,9 eta 65,2 milioi) inportazioek hazkunde esanguratsua izan dute.

Hilabete honetan, gure inportazio gehienak Alemaniatik etorri dira (352,7 milioi), Frantziatik (193,7 milioi), Estatu Batuetatik (177,7 milioi), Txinatik (174,6 milioi) eta Angolatik (130,4 milioi).

2024. URTEKO LEHEN HAMAR HILABETEETAKO METATUA

Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzak, 2024ko lehenengo hamar hilabeteetan, 3.371 milioi euroko saldo positiboa izan du

Urteko lehenengo hamar hilabeteetan, Euskal AEko esportazioak % 3,3 jaitsi dira aurreko urteko aldi beraren aldean, hau da, 907,8 milioi gutxiago. Horrek esan nahi du merkataritza-saldoa 902,3 milioi euro murriztu dela aurreko urteko aldi berean erregistratutakoaren aldean.

Bizkaiko esportazioak, aztertutako aldian, Euskal AEko garrantzitsuenak dira, guztira 10.252,2 milioiko metatuarekin eta % 1,3ko hazkundearekin. Araban, 7.546,0 milioirekin, % 12,7ko murrizketa izan da. Gipuzkoak oreka mantentzen du % 0,6ko hazkundearekin eta esportatutako 8.406,8 milioi euroekin. Produktu mota kontuan hartuta, "Produktu ez-energetikoak" (24.367,6 milioi) % 5,5 jaitsi dira. "Produktu energetikoak", aldiz, % 37,1eko hazkundera izan dute, 1.837,5 milioira iritsi arte.

insertatabla_15262

Xehetasunetara jaitsita, muga-zergen partida nagusia, 2.176 milioi esportaturekin, "10 pertsona baino gutxiagoko turismoak" da, % 17,3ko jaitsiera jasan arren. Jarraian, "Ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak" daude, % 5,1eko hazkundearekin eta 1.978,5 milioitan kokatuz; ondoren, "Petrolio-olio finduak" daude, 1.233,5 milioira iristen direnak, 2023ko urriaren aldean % 11,2 igo ondoren. Hamar muga-zergen partida nagusien artean esportazioen hazkunde handiena (% 350,1) "Petrolio olio gordinak edo mineral bituminosoarenak" izan da, 375,6 milioi esportatu baitira, aurreko urteko aldi berean baino 292,1 milioi euro gehiago.

"Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak" % 32,0 jaitsi dira eta "Kautxuzko pneumatiko berriak" % 28,1, hau da, 575,9 eta 345 milioi gutxiago, hurrenez hurren. Beste atzerapen handienetako bat "Soldadurarik gabeko burdinazko edo altzairuzko hodi eta profil hutsetan" gertatu da, 178,5 milioi jaitsi baitira aurreko urtearen aldean, % 29,2.


2024ko lehen hamar hilabeteetako ranking esportatzailearen arabera, Frantzia da herrialde hartzaile nagusia, esportatutako guztizkoaren % 16,1ekin. Frantziaren atzetik daude Alemania (% 14,3) eta Erresuma Batua (% 7,1), eta horrela, hiru herrialdeen artean, euskal esportazioen ia % 38 biltzen dituzte.

Euskal AE osotara hartuta, 2024ko urrira arteko inportazioen metatua 22.834,2 milioi euro ingurukoa da. Urte arteko alderaketan, zifra hori 2023ko aldi berean erregistratutakoa baino 5,5 milioi txikiagoa da.

Hauek dira ranking inportatzailearen lehen hiru postuetan dauden produktuak: "Petrolio olio gordinak edo mineral bituminosoarenak" 4.230,7 milioi (guztiaren % 18,5); "Petrolio olio finduak" 1.436,8 milioi inportatu (guztiaren % 6,3) eta "Ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak", 823,4 milioi (guztiaren % 3,6).

Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzak, 2024ko lehenengo hamar hilabeteetan, 3.370,8 milioi euroko saldo positiboa izan du, aurreko urteko aldi berean erregistratutakoa baino 902,3 milioi gutxiago, hau da, % 114,8ko estaldura-tasa. Tasa hori 100etik gora dago, hau da, inportatzen duguna baino gehiago esportatzen dugu, 27-EBko ia herrialde guztiekin alderatuta, Irlanda (% 14,0), Luxenburgo (% 86,2), Suedia (% 99,5), Finlandia (% 92,1), Letonia (% 76,4), Lituania (% 98,4) eta Bulgaria (% 98,4) izan ezik. Hala ere, horietako askotan parekotasunetik gertu gaude.

Rankineko lehen postuetan dauden herrialdeen kasuan, hala nola Alemanian, tasa hori % 112,3koa da, Frantzia % 231,1ekoa eta Erresuma Batuan % 325,4koa.



Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62